



ABALTZISKETA

2019KO MAIATZAREN 26KO UDAL HAUTESKUNDEAK

Abaltzisketako Udalak, 2019ko maiatzaren 26an ospatuko diren Udal Hauteskundeak direla eta, ohikoa den bezala, herritarrei Uala osatuko duten kideak izendatzeko aukera eskaini nahi die.

Laister izango da taldea osatzeko azken eguna eta Udala osatu gabe gera ez gaitezen, aurrez lanean hasi beharko gara.

Horretarako, herritarrek, egoki iruditzen zaion taldearen izenak jarri ahal izango ditu eta udalean jarriko den hautesontzian sartu. Era honetara, boto gehien lortzen dituztenekin harremanetan jarri beharko da.

Zerrendak aurkezteko egunak eta orduak hauek dira:

OTSAILAREN 18TIK MARTXOAREN 4 ARTE, BULEGO ORDUETAN (astearteak ezik).

UDALEKO ARETO NAGUSIAN ORRIAK ETA BOLIGRAFOAK EGONGO DIRA ETA BERTAN IDATZI DAITEKE. BESTELA, ETXEAN IDATZITA EKARRI DAITEZKE.

Ondoren, jasotako papeletak ireki eta kontaketa egingo da eta botu gehien lortu dituztenekin harremanetan jartzen hasiko gara.

Beraz, datozen lau urte hauetan herriaren alde eta herritarrentzat ahalegin bat egiteko borondatearekin parte hartzea eskatzen da.

Abaltzisketan, 2019ko otsailaren 14an.

Abaltzisketako Udalak